

GINKANA TOUR 2009
BURDINMENDI
Oraingoan trenez!! "Kadaguaren Ibilbidetik"

Enkarterrietako
ALTXORRAREN
X BILA

2009ko urriaren 10ean

Oraingoan Ginkana Tour trenez egingo dugu hurrengo udalerrietatik igaroz: Bilbo, Alonsotegi, Gueñes, Zalla eta Balmaseda.

Ginkana Tour 2009 Bilboko FEVEren La Konkordia izeneko geltokitik abiatuko da.

Dinamika

- ◆ Parte-hartzaile diren talde guztiei ordu bererako deia egingo zaie: 09:30ak.
- ◆ Parte-hartzaile bakoitzari txartelak emango zaizkio ibilbideko geltoki bakoitzean trenetik irten eta berriz sar daitezten.
- ◆ Txanda bakoitzeko frogak erabat desberdinak izango dira. Talde bakoitzak ibilbiderako ordena bakar bat izango du beste parte-hartzaileekin toporik ez egiteko: non gelditu izateko geltokiak zeintzuk diren eta udalerrri bakoitzean egin beharreko frogak ere.
- ◆ Froga egin izana zuritu eta ezarritako tokietariko bakoitzean egon direna frogatzeko, erantzun-fitxa bete beharra izango dute eta frogarekin zerikusia duten argazkiak atera beharra ere. Hori guztia azken kontrolgunean erakutsi beharra izango dute.
- ◆ Trenen ordutegia emango zaie, froga bakoitzean erabili beharreko denbora kalkulatzeko gogoan izan beharko baita.
- ◆ Azken froga bezala, egindako argazkiekin argazki-muntaia bat etxean jada egitea proposatzen da. Muntaia irabazleak sari berezia jasoko du.

IBILBIDEAK

1 Ibilbidea

Kastrexana - Alonsotegi - La Cuadra - Balmaseda.

2 Ibilbidea

Alonsotegi - La Cuadra - La Herrera - Balmaseda.

3 Ibilbidea

Kastrexana - Gueñes - La Cuadra - Balmaseda.

4 Ibilbidea

Gueñes - La Cuadra - Ikastetxea - Balmaseda.

5 Ibilbidea

Kastrexana - La Cuadra - Ikastetxea - Balmaseda.

6 Ibilbidea

Alonsotegi - Gueñes - La Herrera - Balmaseda.

Hasi aurretik taldeari bete beharreko instrukzioak emango zaizkio eta hurrengo jaitsi beharreko geltokiari dagokion aztarnarik ere.